

BERRIGARA

86. zenbakia

JARDUN ELKARTEA, Bergara


1.992, azaroak 27

**VENICIO
ARIAS**
PARAGUAYTIK
BERGARA
EZAGUTZERA

**KIROL
ARGAZKIAK:**
EPAIMAHAIK
JAKITERA EMAN
DITU JADANIK
LAN
SARITUAK


KIROLAK

AITOR
ZABALETA
GIDARI
BERGARARRA
BIGARREN
ESPAINIAKO
MENDIKO
KOTXE
TXAPELKETAN



**PERRETXIKO SASOIA
AMAITZEAR**


kutxa



gipuzkoa
donostia kutxa

Biltoki

GAUZAK ERRAZ JARRIKO DIZKIZUGU!



Sukalde eta bainugelarako mobleria
Diselnua eta goimallako kalitatea
5 urteko garantia

San Pedro z/g
Tfnoa: 76 34 00

PHILIPS




Teknologia eta diselnua
TB-BIDEOAK eta HI-FI MATCH-
LINEekihoak
K-200 telebista berriak

Barrenkale, 6
Tfnoa: 76 25 96

dekorazioa

Estiloko altzariak eta gazteentzakoak
Alfonbrak. Ielho-olhal, narruzko sofak,
tapizak,...
apaingarriak

San Martin 2
Tfnoa: 76 43 51



BERGARA BOLTSAK

- ✓ Bidaia-boltsak, kirol-boltsak eta bestelakoak egiten dira, narruzkoak, nylonekoak, lonazkoak, etab.
- ✓ Denetarikoko konfekzio industrialak
- ✓ Zuzeneko salmenta publikoa

Santalaitz 1, Tfnoa: 76 57 69 Faxa: (943) 76 55 66 BERGARA

ELKAR

Fotokopiak, Enkuadernazioak
Jendearentzako faxa Plastifikazioa
Planoen kopiak

Harruriaga 1, Behea
Tfnoa: 76 58 16

NAHIKARI-D

B. ZUMALDEren



Erakusketa

Mahasterreka, 20 BERGARA
☎ 76 57 71



PINTURAS BERGARA, S.L.



Arane Erreka, 32 behe. Tfnoa eta Faxa: 76 11 40
BERGARA

- INDUSTRIARAKO PINTURAK
- APAINKETARAKO PINTURAK
- GARBIKETAK
- ERROTULOAK
- Etab...

BERRIGARA

Argitaratzailea:

Jardun Elkarte
Errotalde Jauregia, 20.570
Bergara

Tfnoa eta Faxa: 76 03 97

Babeslea: Bergarako Udala

Laguntzailea:

Eusko Jaurlaritzza

Erredakzioa

Eneko Azkarate, Eduardo Mendibil
eta Mikel Elkorobereibar

Maketazioa:

Eneko Azkarate eta Eduardo
Mendibil

Publizitatea eta harpidetzak:

Alex Azkarate eta Edurne
Arenaza. ☎ 76 03 97

Erredakzio-kontseilua: Inaki

Eraña, Gorka Elorza eta Alex
Labaian

Kolaboratzaileak: Jose Angel

Mikeo, Estepan Plazaola, Miguel
Angel Elkorobereibar, J. M.
Elexpuru, J. Oregi, A. Urzelai,
Maripi Laskurain, N. Alzelai,
Ainhoa Lete, Jon A. Bengoa, M.
Lizarralde, Monika Belastegi, M.
Elkorobereibar, Aitziber
Aretxaga, Ainhoa Bikuña eta I.
Sorondo.

Argazki laborategia:

B. Cantero, M. Leturia, J.A.
Eguren, J.I. Millan, J. Aguayo, J.
Garzia, D. Santos, P. Retolaza,
Kifu eta Pol-Pol Mendizale
Taldea.

Komikia eta marrazkiak: Josu

Okina eta Antonio Arrillaga

Inprimategia:

Gertu Koop. E. (Zubillaga. Oñati)

Banaketa: Txantxangorri Taldea

Copyright:


BERRIGARA

Tirada: 3.000 ale

Lege gordailua: SS 50/ 91

ISSN: 1130-6599

BERRIGARA ez du bere gain har-
tzen aldizkarian adierazitako esa-
nen eta eritzien erantzunkizunik.



Aldizkari honek

**Eusko Jaurlaritzako Kultura eta
Turismo sailaren laguntza jaso du**

PROTAGONISTAK

HIESaren ASTEA

Ikusmin handia sortu du aste honetan Arrasateko *HIES Ekimena* kolektiboak gure herrian antolatutako HIESaren asteak. Horrela, astelehenetik ostegunera gaisotasun larri honen aspektu ezberdinak aztergai izan dira Kultur Etxean iragarritako hitzaldietan.



Horrez gain eta asteartearen, abenduak 1, IHESaren Nazioarteko Eguna ospatzen dela aprobetxatuz, *HIES Ekimenak* mozio bat aurkeztuko du Udalak astelehenean egingo duen Plenoan. Bertan, gaisotasun honen al-

deko lanak eta ikerketak burutzen dituztenei solidaritatea adieraztea, Bergarak eta bergarrok gaixoak ez diskriminatzea edota Munduko Osasun Elkarteak gomendatzen dituen neurriak betetzea eskatzen da.

HIES Ekimenak mozio bat aurkeztuko du Plenoan

ITURRI ONETIK

Polemika Txapa Irratian

Asteartean Txapa Irratiko asanbladak bilera bat izan zuen Luis Abajo zinegotziarekin programa batetan alkateari eginiko irainak aztertzeko. Antza denez, Victoriano Gallastegi alkatea oso haserre azaldu da Txaparen jokaerarekin eta aipaturiko programaren arduradunekin biltzeko eskaera egin zuen Luis Abajoren bitartez. Txapakoek, beren aldetik, programaren arduradunak ez zituztela presionatuko eta hori erabaki pertsonala zela adierazi zuten.

ESAN DUTE

"Alderdi politiko abertzaleetatik zenbat daude prest konpromezu serio bat hartu eta zera esatera: gure listetan ez da inor joango euskaraz eta erderaz moldatuko ez denik. Ertzantzan ere berdin; euskaraz moldatzen ez diren bitartean ez zaie titulurik emango. Hori da daukagun apostua eta hortan goikoek erantzunkizun handia daukate".

MIREN AZKARATE
Euskaltzaina
EUSKADI IRRATIA

"Zarautzeko karreraren ondoren moral haundiarekin nentorren Duranara. Hala ere banekien atzeritarrak forma aldetik primeran zeudela eta gogorra izango zela garaipena lortzea. Benetan ondo aurkitu naiz karrera osoan zehar".

IÑIGO IGARTUA
Txirindularia
EGIN

Atsedeen zentrua

LOKARTU

Koltxoi-Denda

Bideberri z/g. ☎ 76 05 01

ZUBIAURRE

AROSZTEGIA

- Sarrerako eta barruko ateak •
- Horma armairuak • Tarimak •
- Egurrezko eta PVCzko leihoak •
- Era guztietako arotz lanak •

Zubiaurre, 2. 76 15 14 / 76 35 73

ELEKTRO

ARENAZA C.B.

**Montaje elektrikoak,
automatismoak, e.a.**

San Lorentzo 19,
Tfnoa: 76 03 17 - 76 03 43

**JUEGO DE PATRIOTAS**

Ostirala: 22.30.

Larunbata: 17.00., 19.30. eta 22.30.

Igandea: 17.00., 19.30 eta 22.15.

Astelehena: 19.30.

**SOLO EN CASA**

Igandea: 11.30.

**GRAND CANYON**

Osteguna: 19.30.

Zinea

▼▼ **Tom Clancyren** nobeletatik pantailaratu eta orain **Harrison Fordek** (*La caza del Octubre Rojo*) Alec Baldwin izan zen eroiaren paperean) protagonizatutako pertsonaia hau milaka arazotan murgilduko zaigu berriz ere. CIAN izan dituen kasu guztiak joko bat izan dira honako honekin konparatuz. Bere familia ere arriskuan egongo da.

▼▼ **Macaulay Culkin** modako aktorea etxean bakarrik uztea ez da ideia batere ona. Bere etxera sartu nahi izango duten lapurrei galdetu bestela. Guztioin gozamenerako, larriak pasako dituzte.

▼▼ **Lawrence Kasdan** (*El turista accidental*) iparramerikarrak errodututako azken filmea. Orain gutxi izandako istiluak gertatu aurretik, Los Angeleseko gaur egungo egoera azaltzen digu momentuko zinegilerik onenak eta.

Erakusketak

▼ **Manu Muniategik** bere azken kuadroak ikusgai izango ditu Kultur Etxean ostiraletik, hilak 27, abenduaren 13ra bitartean.

▼ **Bizi Alternatiboko** argazki erakusketa ikusteko azken aukera ostiralean, hilak 27, arratsaldeko 7etatik 9etara izango duzue.

Farmaziak▼ **Larunbata 28:**

Guallar.

▼ **Igandea 29:**

Guallar.

▼ **Astelehena 30:**

Estella.

▼ **Asteartea 1:**

Mozos.

▼ **Asteazkena 2:**

Camacho.

▼ **Osteguna 3:**

Puy.

▼ **Ostirala 4:**

Guallar.

Ogia▼ **Igandea 29:** Ogizun.**ZUBIETA****elektragintza**

- ✓ *Motorren bobinaketa*
- ✓ *Era guztietako instalakuntzak*

Kruz Gallastegi, 2 behea
Tfnoa: 76 23 48

ONENA**TINDATEGIA**

Barrenkale 29, BERGARA

**Euskalduna
Taberna****OSINTXU**

Ikuskizunak


▼ **Zakarrak** taldea larunbatean, hilak 28, 11etan Gaztetxean.

▼ **Moda desfilea.** Udazkeneguen denboraldiko moda. Institutuko ikasleek antolatuta. Igandean 19.30etan Mariaren Lagundian.

▼ **HIESaren astea** Gaztetxean. Astelehen, asteazken eta ostegunean aste honetan zehar Kultur Etxean izandako hitzaldiak errepikatuko dira. Arratsaldeko 7etan.

Aukeran

▼▼ **Odol Emaleen Aldeko** pelota jaialdia antolatu du Oxirondo Elkarteak larunbaterako, hilak 28. Gaueko 10etatik aurrera honako partidua hauek jokatuko dira: Berraondo-Idiakez/Otaegi-Urretabizkaia (gazteak), Atano XII-Tapia I/Ansola-Andueza III. (nağusiak) eta Lejardi-Oliden/Koka-Imaz (afizionatuak).



Kirolak

▼ Futbola:

• **Bergara-Aretxabaleta** (preferente maila). **Igandean** 15.30etan Agorrosinen.

• **Bergara-Groseko** (lehen mailako jubenilak). Ipintzan, **larunbatean** 15.30etan.

• **Bergara-Aurrera** (1. mailako kadeteak). **Larunbatean** 17.30etan.

• **Bergara-Ilintxa** (2. mailako kadeteak), **igandean** 9.00etan.

• **Bergara-Gazteak** (2. mailako jubenilak). Igandean, 10.45etan Ipintzan.

neskak). **Larunbatean** 17.00retan Kiroldegian.

• **Bergara-Urrietako** (senior gizonak). **Larunbatean** 18.30etan Kiroldegian.

▼ Saskibaloia:

• **Bergara-Zabor** (kadete mutilak), **igandean** 10.30etan Kiroldegian.


▼ Futbitoa:

• **Futbito Txapelketa** asteburkaeran Kiroldegian.

▼ Eskubaloia:

• **Bergara-Legazpia**(gazte

5



PROFESIONALAK

• Tolosa III.a eta Oregi Lujanbio eta Andueza VI:aren aurka.

• Laduche eta Zezeaga/Etxaniz eta Tolosa.

• Loiarte eta Alberdi III.a/Gabilondo eta Buene-txea.

Larunbatean,
16.30etan Udai
Pilotalekuan.

FANCY

GAZTEEN MODA! Bizkai Etorbidea, 1 Etxabea ARRASATE Tfnoa: 77 14 24

EZPELETA etxea

Harizko eta kotoizko goimailako izara eta mantelak

Barrenkale 44 BERGARA

Berdintasuna non?

Jakina da, Amnistiaren Aldeko Batzordeak ez daukagula komunikabide-etan agertzeko aukera haundirik, asko bait dira gure mezua ixilarazi nahi duten boteredunak Euskal Herrian. Komunikabideen politika, orokorrean, gure kontra dago, eta guk ez daukagu ez telebistarik ez eta dirurik. Baina Bergarako herriak 13 euskal preso eta 2 deportatu politiko dauzka, eta honez gainera, hor dago Euskal Herriak sufritzen duen errepresioa. Orain arte esandakoagatik eta halabeharrez, gure mezuâ zabaltzeko bide bakarra kartelak, pankartak, pintadak eta muralak dira. Jadanik esan dugu ixilarazi nahi gaituztela eta azkenaldi honetan herria garbi mantentzearen aitzakiarekin gure pankartak eta kartelak kendu, eta pintadak eta muralak borratzeari ekin diote Bergarako agintariek, honetarako Erztantzak, Polizia Munizipala eta Udaletxeko langileak erabiliz. Hau gutxi balitz, gure kontrako errepresioa ere erabiltzen dute N.A.N.a eskatuz, gu atxilotuz eta inoiz gertatu den bezala auziperatuz. Esan beharra dago guzti hau gaurdaino inork esplikatuz ez digun "EUDDEL"en normatibaren izenean egin dutela.

Lehen Galarreta zapatadenda zegoen lekuan Gestorek egindako bi mural (bata errefuxiatuen alde frantses produktueganako boikota aldarrikatuz eta

bestea euskal preso politikoek kalera-tzea eskatuz eta gestoren anagramarekin) aspaldian borratu zituen Udaletxeak eta non aurkitzen dugun leku beran eta Udaletxearen babesarekin beste hiru mural egin direla "Bizi Alternatiboa" kanpainaren barruan. Sorpresa pozgarria alde batetik eta harridura bestetik.

- Zergatik mural batzuk bai eta besteak ez?

- Zergatik JARDUNen eta EUSKAL HERRIAN EUSKARAZen anagrama bai eta GESTORENA ez; zikintasuna, ez al da berdina?

- Zergatik batzuk Udaletxeko programa ofizialean eta beste batzuk Erztantzaren babespean?

- Ezberdintasuna non dago, muraletan edo gaietan?

- Non daude demokrazia eta adierazpen askatasuna?

Bukatzeko, zorionak eman nahi dizuegu JARDUN eta EHE taldeei euskararen izenean gure herriko kaleetan kolea jarri duzuelako. Segi horrela.

Eta alkateari eta bere taldeari esan politikoei arazoak konpondu behar dituztela eta ez daudenak izkutatu eta berriak sortu.

**Bergarako
Amnistiaren Aldeko
Batzordea**

Bergarako Gida Komertziala



Urte amaierarako proiektu berriak ditugu Berrigararen. Hori-en artean bat Bergarako Agenda. Eta agendaren barruan Bergarako dendari, profesional eta enpresa guztien helbide eta telefonoak eman nahi ditugu behar bezala sailkatuta. Telefonolistenteko "Orrialde horiak" deitutakoen antzeko zerbait izango da, baina Bergarako. Bertan agertzea merke-merkea izango da: 1.000 pta. baino ez.

Gure asmoa gainera hemen-dik aurrera urtero ateratzea izango litzateke eta aurrerantzean kobratu gabe.

Agendak, Gida Komertzialarekin batera, beste hainbat helbide eta telefono ekarriko du: larrialdietarako telefonoak, kultur eta kirol elkartenak, elkarte gastronomikoenak, etab.

Gida honetan agertu nahi duzuen guztiok dei ezazue 76 03 97 telefonora azaroaren 30a baino lehen 11etatik 13.00etara edota 16.00etatik 18.00etara.

Tiira ba!



Josu Okina

Alkateari zuzendutako pintaden aurkako mozioa Plenoan aztergai

□ Yugoslabia

Antzuolatik
Yugoslavia Ohiari
Elkartasuna taldeak bi kontu korronte ireki ditu errefuxiatuak jasotzeko dirulaguntza eman nahi dutenentzat, bata Kutxan (102.0089-7 zka.) eta bestea Lankide Aurrezkian (622.2 zka.).

□ JARDUN

Larunbatean, hilak 28, JARDUN Elkartearen lansaioa ospatuko da Mariaren Lagundian goizeko 10etan hasita. Elkarreak dei egiten die bazkide guztiei bileran parte hartzeko, besteak beste, momentuko egoera, antolaketa proposamena edota batzar orokorraren prestaketa aztertuko direlarik.

Bergarako Udalak astelehenean egingo duen Plenoan, besteak beste, Victoriano Gallastegi alkatearen kontra egindako pintadak, *HIES Ekimena* kolektiboak HIESaren gainean aurkeztutako mozioa (3. orrialdean) edota Herri Batasunak urerrekurtsoen planifikazioari buruz Plenora eramango duena izango dira aztertuko diren gaiak.

Azken egunotan Victoriano Gallastegiri zuzendutako zenbait pintada agertzea salatu nahi dute EAJ, EA, PSE-PSOE eta EE alderdiek.

Alderdi hauek "*beren elkartasuna*" adierazi nahi diote alkateari eta, bide batez, "*anonimotasunean ezkututzen diren pintada hauen egileak salatu*". Era berean, aipatutako lau alderdiek Bergarako herriari dei egiten



diote "*era honetako ekintzak gogorki salatu ditzan*".

Ur-baliabideak

Bestalde, astelehenean Kultur Etxeko 3.era-kusgelan arratsaldeko 7 terdietan burutuko den Plenoan, Herri Batasunak ur-baliabideen plangintzari buruzko mozioa

aurkeztuko du. HBren ustez, *Confederación Hidrográfica del Norte de España* delakoak bere plan hidrolojikoak geldiarazi beharko luke, "*kontutan hartuz gure burujabetza politikoa larriki erasotzen duela eta gure etorkizunaz kanpoko eskuhartzerik gabe erabakiak hartzeko eskubidea duela*".

Everesteko kontuak

Izugarrizko jendetza erakarri zuten Iosu Bereziartua, Felix Iñurrategi eta Jose Ramon Zubizarretak asteazkenean UNEDen Everesti buruz JARDUN Elkarreak antolatutako hitzaldian. Lehenbizi Iosuk iaz *Azpeitia Everest 91* espedizioko diapositiba emanaldia eskeini zien bildutakoei eta ondoren aurten Everesten izan diren hiru mendizaleek han bizitako esperientzien berri eman zuten txarla animatu batean. Azkenik, Iosu Bereziartuak Amaia Aranzabal egoera onean eta animatuta dagoela ere aurreratu zigun.



ORTZI
ERRETEGIA

ANGIOZAR ☎ 76 22 68

Paper pintatuak - Pinturak

A. ZANGITU

☎ 76 19 54 BERGARA
☎ 79 91 82 ARRASATE




□ **Trafikoa**

Aste honetan kaleratutako alkatetzaren ohar baten bidez herritarroi jakinarazten zaigu azaroaren 24etik aurrera Mahasterrekako Zeharbidean (Bideberri) ibilgailu astunen (kamioi, trailer eta antzekoen) zirkulazioa debekatuta geratzen dela, hori adierazteko beharrezkoa den seinalea ipiniko delarik.

□ **Moda**

Institutuko 3. mailako ikasleek, ikas-bidaiarako dirua ateratzeko asmoz antolatuta, igandean, azaroak 29, Udazken-Negu denboraldirako moda desfilea burutuko da arratsaldeko 7 terdietan Mariaren Lagundian. Txartelak bertan egongo dira salgai 400 pezetatan.



Kirol argazki sarituak

Udal Kirol Zerbitzuak eta Pol-Pol Argazki Taldeak antolatutako II. Kirol Argazkien Lehiaketako epaimahaiak jakitera eman ditu saritutako lanak: Zuribeltzean, Amurrioko Cristobal Burgosek irabazi du lehen saria *Cross I* lanarekin; Koldo Galbez bilbotarrak bigarrena *Nº 3* lanari esker, *Baloncesto I* lanagatik Juan Tabaresek hirugarrena eta lokal onenari zegokiona, berriz, Benito Canterok eraman du *Igeriketa* lanarekin (argazkian).

Kolorezkoetan, Enrique Ruiz de Erenchun

durangarrak irabazi du *Toucherekin*, Alfonso Cruz plaentziarrak bigarrena *Cross* argazkiarekin, Javier Ruiz de Larrinaga azpeitiararentzat izan da hirugarrena *Eskuz* lanagatik eta, azkenik, Dani Santosek lokal onenarena eskuratu du *Mountain Bike* lanari esker. Kategoria bakoitzeko lehen hirurek 20.000, 15.000 eta 10.000 pta.ko sariak jaso dituzte eta lokal onenek ere 10.000 pta.ko saria eta trofeo bana irabazi dute. Abenduaren 2tik 13ra bitartean lan onenen erakusketa izango da Kultur Etxean.

□ **Eguzki**

Bilbo-Behobia autopistako peajea luzatzearen aurkako kanpainari ekin dio Eguzki talde antinuklear eta ekololojistak. Zentzu horretan, postal batzuk atera ditu Josu Bergara Garraio eta Herrilan sailburuari bidaltzeko, peajea kendu eta luzapenaren aurkako eskaria jasotzen delarik. Bestalde, Maltzaga-Urbina autopista erakitzearen kontrako eritzia ere azaldu du Eguzkik azken egunotan.

□ **1.957.ekoak**

1.957. urtean jaiotako gizon eta emakumeek *kinto eguna* ospatuko dute datorren abenduaren 12an gaueko 9etan Antxonik Jatetxean egingo duten afariarekin. Izena emateko interesa dutenek Intxortara jo edo bertako 76 22 76 telefonora deitu dezakete.

Iturkintz Berri

Amillaga 1
(B pabiloia)
BERGARA

INSTALAZIOAK:


Iturkintza
Berogintza
Gasa

☎ 76 28 04

GISASOLA BURDINAKI DENDA

"Erratzu"

Pedro Deuna 8, Tfnoa: 76 27 70 BERGARA



PAPERDENDA

Marcó

Baekurutzeta, 44
Tel 943 / 76 05 54
Fax 943 / 76 05 54
20570 BERGARA



Jubilatuak txapeldun

Jubilatuak izan dira aurten jokatuak Elkar-teen arteko XXIV. Karta Txapelketaren irabazleak, Pertxa Elkartean izandako finalean, 3 eta 1 irabazi baitzioten Oilagorra Elkarteari.

Tutean, Jubilatuetako Agirre eta Etxebarriartenak 9 eta 7 irabazi zieten Toledo eta Eguren; 8 erregetako musean, berriz ere jubilatuak nagusitu ziren, Ayastuy eta Loidik 3 eta 1 irabaziz Ramos eta Azkarateri eta, azkenik, Oilagorrek 10 erregetako musean lortu zuen ohorezko puntua, Azkarate eta Osak 3 eta 2

irabazi baitzieten Eguren eta Iturberi.

Beraz, Jubilatuen Elkartek Udalak emandako kopa eraman zuen, Oilagorrek Banco Vitoriak emandakoa jaso zuen eta Madurak, berriz, Kutzaren trofeoa eskuratu zuen, hirugarren posturako lehian Lasai-Tokiri 2 eta 1 irabazi ondoren.

Orain Jubilatuek Alkartu-Nairen kopa urtebetez elkartean izateko eskubidea izango dute. Hermandad Pertxak aurreko bi edizioak irabazi eta honetan huts egin zuenez, jabegoan hartzeko aukera galdu zuen eta.

Txinpartak

✓ **Bergarako Orfeoak** Santa Cecilia eguna ospatuko du larunbatean, hilak 28. Arratsaldeko 7 t'erdietan meza izango da Monja Zaharretan eta 9etan afaria Askasibar Jatetxean.

✓ **Musika Eskolako Orkestra Sinfonikoak** kontzertua eskeiniko du larunbatean, hilak 28, arratsaldeko 7 t'erdietan iurretako elizan.

✓ **Haurrentzako bideo emanaldirik** ez da izango larunbat honetan, hilak 28. Emanaldia bertan behera uztea erabaki da JARDUNen lan-saioa egingo delako goizeko 10etan Mariaren Lagundian.

✓ **Pol-Pol M.T.k** dei egiten die bazkideei urteko kuota ordaintzeko. Ordaintzen ez duenari baja emango zaiela iragartzen du Pol-Polek.

✓ **Odol Emaleek** dei egiten dute asteazknean, abenduak 2, arratsaldeko 7etatik 9etara Aranzadi Ikastolako lokalean egingo den odol ematean parte hartzeko.

✓ **Kultur Ekintzak** dei egiten die artisau lanak egiten dituzten bergararrei antolatuko den erakusketan parte hartzeko. Interesatuak Kultur Ekintzak Errotalden duen lokalera jo dezakete.

Bidekurutzeta 6, behea
Tfnoa: 76 57 68
BERGARA


aroa
boutique

ETXEBERRIA

ERLOJUTEGIA - BITXITEGIA

Bidekurutzeta 16, Tfnoa: 76 23 94- 76 12 65
BERGARA

ARREGUI, S.L.



AROSZTEGIA

- AROZLAN MEKANIKOAK
- SUKALDEKO ARMAIRUAK
- HORMA ARMAIRUAK
 - ATEAK, etab.
 - TARIMAK-PARKETAK
- NEOPRENOZKO JUNTADUN EGURREZKO LEIHOAK
- PVCzko LEIHOAK

Urteaga, 20. 76 11 73
Erakusketa: Bidekurutzeta, 38

Perretxikoak: mendiak duen altxorrik preziatuena

Perretxikoak beraien sasoiak heltzen denean mendiak duen altxorrik preziatuena bihurtzen dira. Basoak eta zelaiak perretxikozalez betetzen dira, bakoitzak bere urteroko perretxiko tokia bisitatuko du iazko onddo edo gibel-urdirin sorta aurkitzeko asmoz.



Luis Ezenarro, Pol-Poleko mikologia taldearen sortzailetarikoa.

Perretxikoak orain oso estimatuak dira arlo ezberdinetan: Gastronomian, zientzian ea.. Baina balio hau ez da betikoa, lehen perretxikoak ez zuen, Euskal Herrian behintzat, orain duen estima eta zaletasuna. Gure mendietan 4.000 perretxiko ezberdin ezagutzen dira, 1.500 jatekoak dira, 30 pozoidunak eta 5 hilkorrak. Perretxikoak urte osoan zehar lur azpian daude eta beraien garaia heltzen denean bakoitza bere itxura propioarekin

kanpora irtetzen dira. Iñaki Madinabeitiari, Pol-Poleko mikologia sailekoari galdetu genion perretxikoen funtzioez eta berak dioen moduan, *"perretxikoak izadiaren katean funtzio garrantzitsua dute, bizirik gabeko organismo animal eta begetalak eraldatzen dituzte, eraldatu ondoren hildako material horiek gatz eta minerall bihurtzen dira, lurra- rentzat ongarrri garrantzitsua bihurtuz".*

Perretxikoa hazi dadin

beharrezkoak dira faktore batzu: eguraldia, landaretza, urte sasoiak. Iñakik adierazitako moduan *"orain arazoak daude pinuarekin, pinua kentzerakoan "subsolatua" erabiltzen da, subsolatua erabiltzearekin mendia zeharo garbitzen da, lur gainean dauden materiale guztiak garbitu egiten dira eta honek agortu egiten ditu ongarririk (hildako animaliak, arrama zaharrak, ea...), hauek agortzean perretxikuen funtzioa sobran dago eta*

desager daitezke".

Perretxiko erakusketak

Luis Ezenarro 1969an hasi zen perretxikoen munduan; berak esan bezala *"ni sukaldaria naiz eta nire lanerako perretxikoei buruzko liburuak irakurtzen hasi nintzen, baina mundu hau asko gustatu zitzaidan eta beste batzuekin mikologia talde bat sortu genuen".* Bergaran sortutako mikologia talde

**Aldoka
Maldoka
TABERNA**

Kruz Gallastegi, BERGARA

Laskurain
saneamenduak

Barrenkale, 35 ☎ 76 24 89 BERGARA


honek garrantzi handia izan zuen. Urte haietan Tolosa, Leitza, Galdakao eta Gasteiz ziren lehia-keta gune garrantzitsuenak eta Luisek dioen moduan, "gure lehen lehia-keta Gasteizen izan zen, 88 perretxiko mota eraman genituen eta hamargarren gelditu ginen, burrengo lehiaketara 300 perretxiko mota eraman eta birugarrenak gelditu ginen".

Sendagai eta aluzinogenoak

Perretxikoak aluzinogeno moduan erabili izan dira, arlo hau Euskal Herrian ez dago ondo aztertirik, baina Luisek dioen bezala "Ertamerikan perretxikoak sendagai eta aluzinogeno moduan erabiltzen dira, alde gastronomikoa garrantzia gutxiago emanaz; bemen Amanita Muscaria da ezagunena".

Luisek urte asko daramatza perretxikoak aztertzen eta denborarekin aldaketak egon diren galdetzen diogunean zera erantzun zigun "lehen pago eta gaztainondo gehiago zegoen, han gibel-urdin eta kuletoa basten zen, baina orain pinutela eta txanpinoiak daude gehiago, txanpinoiak ardiaren gorotzetik ugalduta dira". Sukaldean, berriz Luisen ustez neguko trufa da apreziatuena.

Onddoak Probentzako erara



Koldo Lasa sukaldaria.

3 laguntzako osagaiak:

- Kilo bat onddo
- Dezilitro bat olio
- Berakatz ale bat
- Koilarakada bat perexil pikatua.
- Koilarakada bat ogi birrindua.

1.- Onddoak zatitu behatz potoloaren tainako zatiak eginez.

2.- Oliba oliotan pasatu dexente samar gorritu arte. Tapa jarri eta olio berean egosi 15en bat minututan.

3.- Tapa kendu eta onddoak atera albo batera.

4.- Ontziko olioak kendu bi koilarakada utzita. Berakatz pikatua bota olio horretara eta apur bat gorritu. Jarraian ogi birrindua bota eta eragin.

5.- Azkenik olio, berakatz, perexil eta ogi birrinduzko nahasketara onddoak bota. Saltsa horretan apur batean pasa eta kitto. Mahairatzeko prest izango da. On egin!

Gezurra da...

- ✓ Eguraldia aldatzean, perretxikoak onetik txarrera eta pozoidun izatetik jangarri izatera pasatzen direla.
- ✓ Pozoidunak ozpifetan irakiten jarri eta jangarri bihurtzen direla.
- ✓ Bareak probatutako perretxiko guztiak onak direla.
- ✓ Ikutzerakoan urdintzen diren perretxiko guztiak txarrak direla.
- ✓ Sartaginean ipintzean, zilarrezko bitxi bat iluntzen ez duten perretxikoak jangarriak direla.
- ✓ Perretxikoak jan ondoren esnea edatearekin arriskuak kentzen direla.
- ✓ Perretxikoak txorten osoarekin biltzen baditugu, perretxiko gehiago sortzea eragozten dela.
- ✓ Gazten antzera, harrak jotako aleak goxoagoak direla esatea.
- ✓ Perretxiko pozoidunak zelaietan ez direla aurkitzen.

Iñaki Linazasororen "Perretxikoak" liburutik aterata.

Corpa
Bazarra
JOSE CORRIUS

Jostailu
sorta
bikaina!!

Barrenkale, 13 BERGARA
☎ 76 19 80



DEBA
GARAIA


INMUEBLE ETA FINANTZA
AGENTZIA

Arrasate / Bergara / Elgoibar

T. Aranzadi, 2 behe. ☎ 76 21 80
76 06 37

Venicio Arias: "Domingo Martinez de Irala oso maitatua da Paraguayan"

Venicio Arias hegoamerikarra bisitari izan dugu egunotan Bergaran. Nahiz eta orain Arjentinan bizi, bere jaioterria (Tobati, Paraguay) Domingo Martinez de Irala bergararrak sortua da eta orain, 1.992. urte berezi honetan, berak, "bidaia sentimental batean itzulerako bidaia" egin nahi izan du.



Venicio Ariasi izugarri gustatu zaio Bergara.

- Zerk bultzatu zaitu bidaia hau egitera?

- Ba arrazoi nagusia nere jaioterria, Tobati, Domingo Martinez de Irala bergararrak sortua dela. Aurten Espainiara etorri nahi nuen eta Bergarara etortzeko asmoa betidanik izan dut; ni oso historiazalea naiz eta Paraguayko historia liburu-etan *Bergarako bizkaitarra* [Martinez de Irala] aipatzen da behin eta berri. Itxura denez, eus-

kaldun guztiei bizkaitarra deitzen zitzaien orduan eta *Historia del Paraguay* liburuan Capitán Bergara, Don Domingo Martinez de Irala edota Bergarako bizkaitarra esaten da berari buruz hitzegitean.

- Eta nola gogoratzen du Paraguayko historiak?

- Jendeak asko maite du, azken finean semealaba ugari utzi baitzituen Paraguayan. Hangoak indijena eta konkistatzaile-

leen arteko nahasketaren ondorio gara eta, horrez gain Martinez de Iralak Altos, Atyra (guaraniz, biltzeko tokia esan nahi duena), Itá (harria), Yagüaron (txakur haundia) edota Tobati sortu zituen. Eta herri sortzaileak erregeak bezainbeste estimatzen dute herritarrek. Hain zuzen ere, Martinez de Irala herriko patroia- ren (Kontzepzio Amabirjina) maila berean dago Tobatin eta bera hil

zeneko eguna (jadanik 454 urte bete dira) jai egiteko proposamena aztertzen ari da Udala.

- V. Mendeurrenaren ospakizunak ere izan dira aurten...

- Bai, baina tristezia da nagusi Hegoamerikan ospakizun horrekin eta gehiengo horren aurka dago. Urrea eta beste gauza askoren lege gabeko apropiazioa egon da eta Europak gehiago lagundu beharko lioke Hegoamerikari, han pobrezia handia baitago. Gizakien arteko harremanak sendotu beharra dago, baita Tobati eta Bergararen artekoak, zergatik ez?

- Eta hemen zer aurkitu duzu?

- Bergara oso polita da eta hemengo herritar sentitu naiz, hemengo batek sortu baitzuen nere jaioterria. Euskara eta guaraniaren arteko berdintasunak ere somatu ditut. Guaraniak badu bitxikeria bat; ohizko 6 izenordeez gain, "gu zu gabe" ere esateko aukera dago. Hala ere, biak oso goxoak direla esango nuke, olerkiak edota emakumeei gauza politak esateko aproposa (barre).

BELENGUA

Taberna

Pintxoak, kafeak...

Ozaeta 12 ☎ 76 20 24

LONBIDE

OINETAKOAK




BIDEKURUTZETA 5

☎ 76 10 57

BERGARA

1.992



BERRIGARA



SARIAK

UDAL KIROL ZERBITZUAK eta BERRIGARAK, iazko moduan aurten ere, Bergaran gehien nabarmendu diren taldeak saritu nahi dituzte «II. BERGARA KIROL SARIAK» aukeraketaren bitartez.

Horretarako, hiru astetan zehar Bergarako kirol taldeek proposatutako kirolariak aurkeztuko dizkizuegu Berrigaran. Kirolariak aurkeztu eta beste bi astetan, txartelak banatuko ditugu, zuek irakurleok 92an Bergaran kirol munduan nabarmendu direnak aukera ditzazuen.

Jasotako botuen artean, bi sari eder zozketatuko dira. Beraz, badakizue, zenbat eta botu gehiago bidali, aukera haundiagoa izango duzue. Animo!!

BERGARAKO XAKE ELKARTEA

- **PRESIDENTEA:** Miguel Angel Muela.
- **SORRERA:** 1.962.
- **FEDERATU KOPURUA:** 100.
- **URTEAN ANTOLATUTAKO EKITALDIRIK AIPAGARRIENAK:** Elkartearen 20. urteurrena ospatzeko Euskadiko Xake Txapelketa jokatu da aurten Bergaran.
- **EMAITZARIK AZPIMARRAGARRIENAK:** Gipuzkoako Preferente mailari eustea lortu du taldeak.

KIROLARIRIK ONENA

Martin Arriaran



Bergarako Xake Taldeak Martin Arriaran bakarrik aurkeztu du aurtengo Kirol Sarietarako, aurten egin duen lana aitortzeko.


28 urte ditu eta Bergarako xakearen ordezkari garrantzitsuena dugu. Espainiako Xake Txapelketan parte hartzen duen lehen bergararra, Euskadiko Xake Txapelketan ere bikain aritu zen. Olot eta Sestaoko nazioarteko openetan parte hartu du.

ZALEAK ATLETISMO TALDEA

- **ARDURADUNA:** Miguel Angel Muela.
- **SORRERA:** 1.986.
- **FEDERATU KOPURUA:** 50.
- **URTEAN ANTOLATUTAKO EKITALDIRIK AIPAGARRIENAK:** San Silvestre lasterketa eta San Martin Herri Krossa.
- **EMAITZARIK AZPIMARRAGARRIENAK:** Gipuzkoako Txapelketetan 4 x 100 m. erreleboetan 4. postua.

KIROLARIRIK ONENA

Anselmo Gomez Rodriguez



Zaleak Atletismo Taldeak ere hautagai bakarra aurkeztu du sariketarako: Anselmo Gomez.

43 urte ditu eta Euskal Herrian jokatu diren lasterketa eta kross garrantzitsuenetan parte hartu du. Donostiako maratoia 3 ordu eta 12 minututan egin zuen eta Behobia-Donostia proba, berriz, ordu bat eta 18 minututan, 304. sailkatuz 5.500 parteartzailearen artean.

OINARRIAK • OINARRIAK • OINARRIAK • O

1 HELBURUA:

Helburua, Bergarako kirol talde eta kirolari guztien urteroko lana aitortzea da. Zuek, irakurleok, daukazue azken hitza: zuen botuek erabakiko dute kirol taldeek proposatutakoen artean, zeintzuk izan diren 1.992an Bergarako kirolaririk onenak, nortzuk nabarmendu diren gehien.

2 SAILAK:

- Kirolaririk onena
- Etorkizunik oneneko.
- Talderik onena.
- Goi mailako kirolaririk onena.
- Batzordearen saria. Lehenengo laurak irakurleen botuek aukeratuko dituzte. Batzordeak, berriz, Bergaran kirol munduan

nabarmendu denari (direktibo, entrenadore...) sari berezi bat emango die.

3 BATZORDEA:

Honako hauek osatuko dute: Andoni Larrañaga (Kirol Batzordeko Zinegotzia), ordezkari bat klub bakoitzeko, Begoña Payas (Eskola Kiroleko teknikaria) eta Iñaki

POL POLEKO MENDI SAILA

- **PRESIDENTEA:** Andoni Larrañaga.
- **SORRERA:** 1.942.
- **FEDERATU KOPURUA:** 387.
- **URTEAN ANTOLATUTAKO EKITALDIRIK AIPAGARRIENAK:** Gazte, Gaztetxo eta Beterano taldeek hainbat mendi irteera egiten dituzte urtean zehar inguruko eta gure mugetatik kanpoko mendietara.

KIROLARIRIK ONENA

Amaia Arantzabal



Pol Poleko Mendi sailak ez du egoki ikusi etorkizunik onenenko kirolaririk hautatzea eta horregatik, Kirolaririk Onena bakarrik aurkeztea erabaki du. Iaz bezala, aurten ere, Amaia Arantzabal dugu Pol Poleko mendi sailaren kirolaririk onena. Amaiak Cho Oyura igotzea lortu du aurten eta 8.000 metrotik gorako gailurra zapaldu duen lehen emakume euskalduna dugu.

SCRATCH GIDARIEN TALDEA

- **PRESIDENTEA:** Ricardo Murillo.
- **SORRERA:** 1.988.
- **FEDERATU KOPURUA:** 3 (Pablo Irizar, Iban Rodriguez eta Aitor Zabaleta).
- **URTEAN ANTOLATUTAKO EKITALDIRIK AIPAGARRIENAK:** Gorlako Auto Igoera antolatu izan dute baina aurten ez dute antolatu.

KIROLARIRIK ONENA

Pablo Irizar



31 urte ditu eta elkarteko kide 1.988tik. 26 urte zituenean hasi zen estatuko zirkuitoetan korritzen eta bere trebetasuna erakusten.

Aurten Espainiako Txapelduna dugu Clio Kopan eta orain dela bi urte Citroen AX kopa irabazi zuen.

ETORKIZUNIK ONENEOA

Iban Rodriguez

18 urte.

Orain arte Kart edo kotxe txikietan aritu bada ere, iaz Clio Iniciación Kopa korritzen hasi zen estatuko zirkuitoetan eta aurten, Espainiako txapeldun geratu da. Bere helburua etorkizunean Formuletan korritzea da.



AK • OINARRIAK • OINARRIAK • OINARRIAK

Ugarteburu (Udal Kirol Zerbitzuko teknikaria).

4 BOTOAK:

Berrigarak 3 astetan jarraian kirol taldeek proposatutako kirolariak aurkeztuko ditu eta azkenengo astean eta beste batean, botoak emateko txartelak argitaratuko ditu. Nahi beste boto bidali ahal

izango dituzue abenduaren 15a baino lehen.

Boto emaleen artean bi pertsonarentzako asteburu baterako bidaia eta Udal Kirol Zerbitzuko bi karnet zozketatuko dira.

5 SARIAK:


- 25.000 pzta. kirol materialean kirolari onenari.
- 25.000 pzta. kirol

materialean etorkizunik oneneko kirolariari.

- 50.000 pzta. kirol materialean kirol talde onenari.
- Sari berezia goi mailako kirolari onenari.
- Batzordeak emandako saria.

a, b, eta d sailetan finalista izan direnen artean Parisera bi pertsonarentzako astebukaera baterako bidaia zozketatuko da.

SARIAK
Kirol
1.992



IPAR
CENTER

SPORT 2000

Kirola bizitzeko dendak

**DENBORALDI
HONETAN**

txurian
emango
duzu





**PISTAK
JARRAITU**

zure eski
hobenak
bilatzeko



**ESKIATZEKO
GEHIGARRI
GUZTIAK**

botak, fijazioak
erropa,
eskularruak



**TREMENDAKO
OFERTAK**

Mountain Bike 18 ab. **18995**
BH Jaka Kulot-a **6900**
Reebok Hig Way Txandala **4995**

Adidas
Futbol zap. **5550**

hauek ez dira guztiak

**IPAR
CENTER** LARUNBATETAN
ETA BAITA
IGANDE GOIZETAN
IREKITA

MADURA

San Lorentzoko elkarte

Madura elkartera in-
guratu eta Jose Castro
presidentek, Karmelo
Santorcuato, Enrike Mu-
guruza, Jesus Coranti eta
Angel Aperribaik osatu-
tako taldearekin egon
ginen berriketan eta
honako hau sortu zen.

Sorrera

Elkartearen gainean
dauden etxeak egin zire-
nean, lokal hau hutsik
gelditu zen. Komertzio-
rako balio ez zuenez, au-
zokoek hartu zuten el-
kartea egiteko. 1.968.ean
izan zen guzti hau.

Elkartearen izenaren
jatorria lehenetik dator.
Gaur egun ezagutzen du-
gun San Lorentzo, lehen
ortu eta lur landuak omen
ziren. Inguru honi Madu-
ra deitzen zitzaionez, el-
kartea izen honekin ba-
taiatzea pentsatu zuten.

Gaur egun 120 bazki-
de dira Madura elkarte-
an. Bazkide guzti hauen ba-
tazbesteko adina nahiko

altua da, baina orain jen-
de gaztea sartzen ari de-
nez, adin hori beheraka
doa. Momentu hauetan
ere bost gazte daude baz-
kide sartzeko zai.

Diruak

Diru kontutan sartuz,
Maduran urtean 2.500.000
pzta inguru batzen dira.
Azaldu zigutenez, kon-
tsumoa pixkat goraka
doa, jende gazteak afari
gehiago egiten omen du
eta. Faltak %3-4 an dabil-
tza.

Madurak herrian os-
patzen diren ekintzetan
parte hartzen du. Besteak
beste, haurren eguna,
koralak datozenean, au-
zoko jubilatuen bazka-
ria...

Beraiek ere badute
ospatzeko egun bat. Junta
Orokorra egiten duten
egunean afaritxo bat ere
izaten omen dute.

Proiektuak ere badi-
tuzte. Sukaldea konpon-
du eta komunak hobe-



Junta orokorra egiten denean afaria egiten dute bazkideek.

FITXA TEKNIKOA

SORTU: 1.968.ean.

BAZKIDEAK: 120.

HELBIDEA: Leizariako San Lorentzo.

PRESIDENTEA: Aldo Porta.

ELKARTEAREN EGUNA: Junta Orokorra eguna.

URTEKO KUOTA: 12.000 pzta.

tzearena adibidez.

Madurako sukaldari
titularra Azpeiti omen da.
Honek, denetik gertatzen
du, eta ez makal gainera.
Azpeiti sukaldean lan
handia eginiko gizona
badugu ere, hartan ari-

tzen diren ugari dago el-
kartean. Eta gainera, be-
raiek esan bezala, lagun-
artean egiten dena, beti
da goxoa.

Ainboa Lete

LAGUN ARO

ASEGURUAK

Agentea:
RAMON IRAEGUI



Ramon M. Lili 6
Tfnoa: 76 23 30
Faxa: 76 41 54
20.570 BERGARA

ORDEZKARIA
BERGARAN



VID-ART

Bidriera artistikoak

**BIDRIERAK - MURALAK -
ISPILUAK-KRISTAL
BISELATUZKO
ATEAK - etab.**

**Azal eiguazu zure ideia
VID-ARTEk
egingo dizu.**

BELANBIDE, Z/G · 20.570 BERGARA
Tfnoa: 76 23 30 / 76 41 54

JOSEFINA

- Ezkongaiak orrazten eta ile-mozketa modernoak egiten espezialistak gara.
- Masajeak, solariuma, perikura, estetika...

Espaloia 4, ☎ 76 35 38

Taberna Kafetegia
EHIZTARIAK
LOS CAZADORES

Kafea da gure berezitasuna


Zubieta 26, BERGARA

Foto Sistema

ARGAZKIAK ORDUBETEAN

- ✓ Diapositiba errebelatzeak.
- ✓ Karneterako argazkiak momentuan.
- ✓ Argazki materialen salmenta eta konponketak.
- ✓ Jaunartze, bataio eta ezteietako erreportaiak.

Kruz Gallastegi 2, ☎ 76 00 50



**ETXE-
-AUNDI**

**Negozio bazkariak
Ezkontzak
Banketeak**

Torre Auzo 9, Tfnoa: 78 19 56
ONATI

TOKI-EDER Taberna

Pintxoak eta eguneko bazkariak

Artzamendi, Tfnoa: 76 51 84

IHESari beldurra al diozu?



Ibon Gantxegi
21 urte, ikaslea

Puxkat bai. Kontuz ibili behar da eta guztiok neurriak hartu behar ditugu. Transfusioei beldurra diet.




Isabel Zabalo
46 urte, etxekoandrea

Ez dut uste. Pentsatzen dut ez zaidala parean tokatuko, urrun ikusten dut.



Ane Miren Iturriaga
21 urte, langilea


Hartzen badituzu hartu behar dituzun prebentzioak ez dago zertan beldurrik izan. Informazioa ere falta da.



Manuel Diaz
26 urte, langilea

Nere ustez hartu beharreko neurriak jarraituz, ez dago arriskurik. Eta neuk hartzen ditut.

SANTOS IRRATI - TB



**TB-Soinua-Bideoa
Antena instalazioak
Kanal Pribatuak
Sukalderako
altzariak
Argiztapenak**

Mahasterreka 2

Tfnoa: 76 26 10

BERGARA

Siaska

**Dena zure
haurarentzako**

Pedro Deuna 10, Tfnoa: 76 10 39

ZAPELAITZ

Taberna

Eguneko menuak
astelehenetik ostiralera

San Lorentzo 25, BERGARA



Hamar urte bizkuntza berean

1.982ko azaroaren 23an hasi ziren Euskadi Irratiaren uhinak hedatzen. Euskara oinarri hartuta, hogeitabosten bat lagunek euskal irratigintzan lehen urratsak eman zituzten.

Garai hartan ordurik gehien betetzen zuena musika zen. Orduko programetako bat oraindik egunero entzun dezakegu: kostaldeko trena; hasieratik gaurdaino bizirik jarraitu duen irratsaio bakarra.

Beste programa historiko batzu ere izan dira: «Aizu, Aizu» lehiaketa, «Sorgin afaria» kultura saioa, edo «Goiz-giroan» magazina.

Gaur, irratian euskera 24 orduz entzun dezakegu; 10 urteotako aupatekorik nabarmenetakoa horixe izan da, 24 orduz emititzea. Hasierako asmoa euskera zabaltzea bazen, orain helburua bertako informazioa landu eta sakontzeaz gain entzulea informatu eta entretenituko duen irrati arin, dinamiko eta modernoa lortzea da. Horretan dihardute 80 langile baino gehiago, 20 kolaboratzaile eta nazioarteko 7 korresponsariak.

10 urteren buruan Euskadi Irratiak argi eta garbi utzi du 160.000 entzulerekin euskal irratigintzan lehena dela eta gizartearen erabateko onespena duela. Aurrera begira, gauza asko dago egiteko, sendotzeko eta lantzeko; garrantzitsuenetakoa, gure tresna, hizkuntza, euskera. Aurtan 10. urteurrena dela eta euskararen egoerari buruzko hitzaldiak antolatu dira; ea hurrengo urteurrenean horren beharrik ez den izaten eta hizpide, aztergai, komunikabi-deak izaten diren.

Jone Larrañaga



Murala

Dotore dago Galarreta zapata denda izan zenaren pareta, Euskal Herrian Euskaraz eta Jardun elkarteak hiru mural margotu ondoren. Udalaren baimena ere izan dute horretarako. Oraingoan jarrera baikorra izan du udalak. Egoera konkretu baten ikuspegia ematen duen mural hori egiteko aukera eman du.

Baina alde kritikagarria ere hor dago. Izan ere, Ajuria Eneako aholku eta aginduak jarraituz, Udalak zenbait arau onartu zituen orain dela hilabete batzuk. Horrela, kartel, pankarta, mural eta beste debekatzea erabaki zuten.

Eta ez hori bakarrik. Herri garbi baten helburuarekin (edota agian aitzakiaz) herriko paretak zuritu ziren. Orain berriro margotu den «Bai Euskarari» sinbolo historikoa desagertu zen. Herri garbia ezezik, herri sumisio ere nahi ote zuten herriko agintariak, adierazpen askatasunetik oso urrun dagoen neurri honekin?

Badirudi orain, lehen zuritutakoa berriro margotzeko baimena ematearekin, beren okerra eta jarrera antidemokratikoa apaindu nahi dutela. Baina apaintzeak ez du balio araua aldatzen ez bada.

Dena dela, ongietorriak izan daitezela muralak. Hauek eta aurrerantzean egingo diren beste guztiak. Baina Udalaren filtrok pasatu gabe.

Jon Altuna

BOLINTXO

Okindegia

San Juan auzoa ☎ 76 16 93 BERGARA
Ibarrekruz 4, EIBAR
☎ 79 63 42 ARRASATE

Kabutzia

ARRAINDEGIA

Fraiskozuri 6, Tfnoa: 76 56 62

JULIA

Frutadenda

Matxiategi 4, behea
BERGARA

IGARO

- ✓ Kosmetika eta oparigaiak
- ✓ Eder gela
- ✓ Bio Solariuma

Barrenkale 35, Tfnoa; 76 17 27

**AGENTZIA:
J. ELKORO**

Ibargarai 2, behea
Tfnoa: 76 57 85
BERGARA

ZURICH

VITA

UNIBER



CAUDAL

HISPANA

ZURICH TALDEA ASEGURUAK

Beheko Taberna

Menestra eta konejoa dira gure berezitasunak.

ANGIOZAR Tfnoa: 76 55 74

SURPE Taberna

Erdiko Plaza, Tfnoa: 76 64 97
ANTZUOLA

ETXAGI

Jatetxea

Afariak - Bataioak
Jaunartzeak

Eguneko menua
Gosariak - Bazkariak

Mahasterreka 8, Tfnoa: 76 53 12

LARREA

TABERNA


Kale Barren 17
ANTZUOLA

Jabier LAZPIUR HARATEGIA

- ✓ Bertako okelak
- ✓ Naturalak, kontserbanterik gabekoak
- ✓ Etxean egindako produktuak

Komenio kalea, 2 BERGARA

PUXKIN OINETAKOAK



D. Irala BERGARA ☎ 76 21 17



□ 1.953.eko kintoak

Berandu bada ere, hemen dakarkizuegu orain aste batzu 1.953.eko kintoek ospatutako anaiarteko egunaren argazki dotorea. Guztira, 60 bat gizon eta emakume bildu omen ziren eta lagunartean primerako eguna igaro zutela esan behar. Lehenbizi hildakoen omenezko meza entzun zuten San Pedron eta Lasa Jatetxean bazkaltzeari ekin aurretik erretratatu genituen. Inork ez dio kamarari ihes egiten...



□ Bandaren estandartea dotoretu

Joan den igandean, Santa Cecilia egunean Udal bandak eskeini zuen kontzertuaren ondoren, Pertxa Elkarteak Valentziako bandetan batez ere oso arruntak diren *corbatín* deituriko oihal bordatu dotore bat eskeini zion gure herriko bandari. Estandartea eramaten duen Gutierrez lagunak arto egoteko arrazoiak baditu..

Carmen Garate

Plastikoak orokorrean oinetakoak, opari gaiak, jostailuak, zumea...

Bidekurutzeta ☎ 76 13 23

% 20ko deskontuak



□ **Jubilatuen afaria**

Joan den ostiralean **Jubilatuen Elkarteak** urteroko afaria eskeini zien bere kolaboratzaileei. Han izan ziren, besteak beste, **Victoriano Gallastegi** Bergarako alkatea eta Udaleko zenbait ordezkari, banketxe ezberdinetakoak, komunikabideak (*Berrigara* tartean) eta, azken finean, urtean zehar jubilatuei beren laguntza ematen ahalegintzen diren guztiak. Esan bezala, afari ederra eta guztiak gustora afalosteko solasean argazkian ikus daitekeenez. Dijestioa egin behar... Datorren urtera arte!!




□ **Egunkaritrena**

Bergaran ez dugu tren-estaziorik baina horrek, itxura, ez du inongo eraginik gure herrira trenak ailegatzeko orduan. Esate baterako, asteartean, abenduak 1, arratsaldeko 5etan **Euskaldunon Eunkariaren** tren izango dugu bisitari Frontoian. Honekin batera, antzerki emanaldiak, pailazoak, txalaparta, dultzaineroak eta *Kukuma* hankapalu taldea etorriko dira eta guztiok, haur eta nagusi, gonbidatuta zaudete ordubeteko jaialdi honetara. Ez galdu aukera!!


Zertan dibardute ba?

MIKEL HERZOG



32 urteko abeslari bergarar honek *Bienvenidos al paraiso* bere azken diskoaren aurkezpena egin zuen pasa den igandean Norma Duvalek Antena 3 katean zuzentzen duen *Por Norma* saioan.

POL-POL ARGAZKI T.



Agustin Gurrutxaga eta Ricardo Azkargorta Pol-Pol Argazki Taldeko kideek 2. eta 3. postuak eskuratu dituzte Eibarren izandako Argazki Rallyan. Urriaren 25ean guztira 25 partaide izan ziren Eibarren.



BERGARA

Tfnoa: 76 25 99

MARKIEGI Automobilak

Automobil eta kamioien karrozeria

Lelzeaga 1 (San Lorentzo Pol/Ind.)
Tfnoa: 76 35 09 BERGARA



Umore giroan

Emosiñuan emosiñoz il

Eibartar bati biotzeko operasiño larri bat egin biar zetsen. Onetan, baiña, Loterixia tokau jakon: 8 milloi! Semiak ez ziran ausartzen notizia aitxari emoten, emosiñoak biotza etengo ete zetsan bildurrez. Orduan medikuari kontsejua eskatu zetsen, ia zelan jokatu une hartan. Laga zeben asuntua medikuaren eskuetan. Juan da gaixuagana eta esate-tsa:

- Zuri, Loterixan, milloi bat tokau ezkerro, zer eingo zenduke?

- Parisera juango nintzake mediku on baten bila.

- Eta bi milloi tokau ezkerro?

- Londresera.

- Eta lau milloi izango balitzakez?

- Nueva Yorkera.

- Eta zortzi tokau ezkerro?

- Ara ba, lau zeuri emongo netzukez.

Berba hauek esan bezain laister, zarata haundi bat entzun zan: medikua infarto batek "seko" lurre-ratu zeban. Emosiñuan emosiñoz, nunbaitx.

* * *

Diru esklan

Eibarren bizi zan kanpotar bati etorri jakozen animentzako diru billa. Arek baiña, eta erderaz, erantzun:

- Animas no comen.

Au bera izango zan, noski, San Antoniori argi eitzeko diru billa etorri jakozenian erantzun zebana:

- Esaixozue san Antoniori egunez ibili dailla.

Pedro Zelaia

Antzinako kontuak

San Martin Txiki (I)

Hilabete honetan, azaroaren hamaikan, San Martin eguna ospatu ohi da. Dudarik gabe, San Martin hau (Tours-ekoa, alegia) Euskal Herrian tradizio zabal eta benerazio zaharrenetarikoa duen santua dugu. Gure herriko mitologiari, maiztasun handiz, San Martiniko edo Samartintxiki bezala agertzen zaigun santuak gizate-riarentzat lorpen handiak (nekazaritza eta metalgintza, adibidez) lortu ahal izango ditu bere ausardia eta «maltzurkeriaren» bitartez. Honokoa nekazaritzaren sorreraz mintzo zaigu J. M. Barandiaranek jasotako leienda. Zalantzarik gabe, nekazaritza Samartintxiki baino dexente lehenagokoa da. Hala ere, anakronismoz beteriko leienda honek badu interesik: alde batetik, leiendak berak duen xarma eta, bestetik, iradokitzen duen irakaspena: nekazaritza etorkin batzuek (basajaunek, jentilek...) ezagutzen duten bizi baliabidea da; guk, euskaldunok, haiei lapurtu edo ikasiko diegu, (leiendan Samartinikoren bitartez) aktibitate berriaren sekretua. Hona hemen J.M. Barandiaranen leienda:

«Izan ere, basajaunek Muskia mendian ereiten zuten garia A-taunen. Behin batean, gizon adoretu bat -San Martiniko- haien adiskidea, leizera joan zitzaien

bisita egitera. Oinetako oso lasa-ak zeramazkian, ondo pentsatuta. Han gari-pilak ikusi zituenean, apostu bat egin zuen basajaunekin, nork errezago pasa gari-pilak, jauzi batean eta gari-ale bat ere ikutu gabe. Basajaunek errez pasatu zuten; baina San Martiniko piloaren erdian erori zen eta abarkak gariz bete zitzaizkion.

Gero basajaunak agurtu zituen eta ibar aldera jo zuen. Laister jabetu ziren basajaunak San Martiniko-k gari alea zeramakia bere oinetakoetan eta beren arma, aizkora, bota zioten. Aizkora gaitain-enbor batean sartu zen...

Gizonek bazuten, beraz, gari hazia; baina ez zekiten noiz erein. Egun batez, hurbiltzen da San Martiniko Basajaunen kobara, eta haietako bati abesti hau enizuten dio: «Gizonek abesti hau balekite, berataz ondo balia zitezkeen: hostoa ateratzean erein bedi artoa; hostoa erortzean, erein bedi garia; San Lorentzotan erein bedi arbia». Horrela bada, San Martiniko-k erein zuen hazia udazkenean eta udaran jaso zuen lehenengo gari uzta;...»

(BARANDIARAN, J.M.: Euskal Herriko mitoak, Gipuzkoako Kutxa, 1.988, 191, 192 oo. Juan Lekuonaren itzulpena)

Xabier Larrañaga

KATAIDE Jatetxea

ASTEBUKAERETAKO MENUA

- Barazki pudina
- Legatz pudina
- Entsalada mistoa
- Askotariko fritoak
 - Arrain zopa
 - Eskalope berezia
 - Txipiariak
 - Xerra plantxan
- Txuleta pipar hautsaz
 - Tripakiak
 - Postrea

1.300 pzta

Kataide Pol.Ind. ARRASATE

KIZKUR



Illepaindegia
Solariuma

Bolu 51, Tfnoa: 76 50 32

ARIZNOA

Taberna

- Gosariak •
- Pintxo bero eta hotzak •

Irala 1, BERGARA ☎ 76 52 30

HARATEGIA - URDAITEGIA

Sebastian Imaz

Bildotsa, txahala eta
oilazkoak

Harane Erreka, 1
76 32 67 BERGARA

BERGARESA MARMOLERIA

PEDRO SALEGI OSA

Sukalde eta bainu enzimerak

Uriarte, 8 ☎ 76 11 99 / 76 14 27

Faxa: 76 04 77 BERGARA

BONOFOTOA



M. A. Elkorobereziabar



Asier Bolinaga

Asier Bolinagak jaso du aste honetan BONOFOTOko saria. Orain bi asteko argazkian agertzen zen testua **Santa Anako ermitan** irakur dezakegu eta **10.000 pzta.**ko saria eskuratu du Asierrek (ezkerraldean) Aitor Lagoma bere lagunarekin. **ZORIONAK** berari eta ea besteok suerte gehiago duzuen aste honetako BONOFOTOAn!!

Zein da baserri honen izena?

Izena: _____ Abizena: _____ Tfnoa: _____

Aste honetako
saria : **10.000 pzta.**

Moztu paper hau eta
ekarri astebete baino lehen:

BERRIGARA
Errotalde Jauregia Bergara

BERGARAKO UDAL GOBERNUAREN OHARRA

Udal Gobernua osatzen duten EAJ-PNV, EE eta PSE-PSOE alderdi politikoek, Bergarako Udaleko enpresa komiteak zabalduko idatzien aurrean zera azaldu nahi dute:

«Langileen hautaketarako Epaimahaietan salatzen dituzten irregulartasunak zentzugabekoak direla eta errealitatearekin bat ez datozenez, enpresa komitekoen demagogia hutsa direla; hori frogatzeko epaimahaietako aktak ikusi besterik ez badago, argi agertzen baita komiteak emandako aldrebestutako bertsioa euron buruaren kontrakoa dela, beraiek ere epaimahaikide diren neurrian.

Aktetan jasota dagoen bezala, Enpresa Komiteko ordezkariak inoiz ez dute Udaleko epaimahai kalifikatzaileetan kontrako iritzirik edo ezadostasunik adierazi; eta hauek sinatzean, egindako frogak eta hauen emaitzak ontzat hartu izan dituzte; beraz, demagogikoa eta paradogikoa litzateke besteoi egozte irregularitasunen errua, halakorik izatekotan, beraiek ere, epaimahaikide diren neurrian, erantzunkizun berbera bailukete. Aitzitik, kaleratutako idatzietan ez da inolako autokritikarik azaltzen.

Politikoek gogoko kontratazioak egiteko elkarrizketa pertsonalak nahi den erara erabiltzeari buruz, gogoratu, elkarrizketa pertsonalak egin aurretik epaimahikide guztien artean (politiko, teknikari eta enpresa komiteko ordezkari) erabakitzen dela nola egin eta hau nola baloratu, betiere, Udal Plenoan onartutako oinarri-

etan ezarritako puntuazioaren mugen barruan. Horretan ere parte hartzen dute Komitekoek, eta inoiz ez dute ezadostasunik adierazi, beraz, irregulartasunik izanez gero, kasu honetan ere erantzunkizuna konpartitu beharko lukete. Dena den, honi dagokionez ere ez dute autokritikarik egiten.

Alkatetzaren Dekretu bidez kontratatu den gizarte ongizaterako teknikariaren kasuan enpresa komitea informatu ez izana ezin zaio gobernu honi leporatu, pertsonaleko departamentuaren barne akats bat besterik ez zen izan eta; kontratazio horrek Enplegu eta Gizarte Arazoetarako Batzordean eta Gobernazio eta Zerbitzu Batzordearen oniritzia jasotzean, enpresa komiteari horren berri emateko agindua eman baitzen. Dena den, kontratazio hau, aurrez Udalak aginduta teknikari horrek egindako hesi arkitektonikoei buruzko lan bat bukatzeko bi hilabeteko luzapena zen, eta lanaren % 80a egina dagoenean, zentzugabekoa da beste norbait kontratatzea.

"Udal teknikariek, euren aginpidea erabiliz, familiakideak kontratatzen dituztela herriko langabetuentzat erreserbatutako lanak egiteko, udalaren onarpenaz". Horri buruz, Udaletxea husteko 3 egunetarako 3 pertsona behar ziren, eta horren ardura duen teknikariak horren berri eman eta Alkateari aholkua eskatu ondoren, 3 egun horietarako Udalaren lan-poltsan izena emanda dauden 3 pertsona kontratatzeko baimena eman zela, besterik gabe».

Aitor Zabaleta, bigarren Espainiako Txapelketan


□ Eskubaloia

Bergara K.E.ko senior gizonen eskubaloia taldeak garrantzi handiko partidua jokatu du larunbatean, hilak 28, *Urnietako* liderraren aurka arratsaldeko 6^{ter}erdietan Labegarietako Kiroldegian. Nahiz eta joan den astean 23 eta 18 galdu Donostian *Bizkor* taldearen aurka, Josetxo Muniategiren taldeak sailkapeneko 2. postuan jarraitzen du.

□ Futbola

Bergarako futbol talde nagusiak pasa den igandean Zarautzen 1 eta 0 irabazi ondoren, Aretxabaletaren kontra jokatu du igandean, hilak 29, arratsaldeko 3^{ter}erdietan Agorrosinen. Aurreko ihardunaldian Fran aurrelariak lortu zuen garaipoenaren gola eta bergararrak badirudi hasi direla beraiek duten jokoa ematen, baina Beitiaren mutilentzat Aretxabaleta arerio gogorra izango da. Partidu honetan pitik ezin izango du jokatu lesionatuta baitago. Bergara sailkapeneko 8. tokian dago orain.

Aitor Zabaleta bigarren gelditu da Espainiako kotxeentzako mendi igoeran. Aitorrek 9 karre-ratatik 3 irabazi eta beste karreratan bigarren egin du. Zabaletak urte osoan zehar arazo ugari izan ditu antolatzaile eta Luis Martinez txapelketako irabazlearekin, berak kontatu digunez, *"Andorran entrenamenduetan 10 segundu atera nizkion Martinezi, baina karrera egunean berak segundu bakar batez irabazi zidan, harrituta gelditu nintzen zeren kubierta berriak zituen kotxeak, entrenamendukoak zaharrak ziren, eta kubierta berriekin kilometroko segundu bat jeisten da, baina karrerako denbora entrenamenduetakoa baino eskaxagoa zen, orduan galdetu nion nere buruari zer pasa zitekeen. Guztien denborak eskatu nituenean konturatu nintzen denborak boligrafoz idatzita zedula, honek susmo txarrak sortu zizkidan, normalean denborak makinaz pasatzen bait dira. Gero karrera bukatzean beti bezala kotxeak pisatu genituen eta Martinezen kotxeak baimendutakoa baino 500 gra-*



Zabaletak eskerrak eman nahi die bere patrozinadoreei.

mo gutxiago pisatzen zuen eta hori gasolina depositoa goraino beteta zeukala, baina epaileek Martinezi eman zioten garaipena".

Azken bi karrerak

Txapelketa bukatzeko bi karrera gelditzen zirenean Martinezek txapelketa irabazita zeukan eta Aitorrek azken-aurreko karrera, Palmakoa, ez zuen korritu. Azken karrera Pontevedran korritu zen eta berak adierazi digunez, *"azken karrera honetarako nire asmo bakarra irabaztea zen, baina Vilariñoren kotxearekin korritu nuen eta kotxea apurtzeko beldurrarekin ez nintzen ausartu nuen guztia ema-*

ten. Karrera hau ere Martinezek irabazi zidan, baina kotxeak pisatzeko orduan bere kotxeak baimendutakoa baino gutxiago pisatzen zuen, orduan apelatu egin nuen eta oraindik ez dakit nori emango dioten Pontevedrako karrerako garaipena".

Datorren urtean Aitorrek Vilariñorekin taldea osatuko du, eta taldean legegizon baten laguntza izango dute aurtengo denboraldian gertatu diren arazoak berriz ez pasatzeko. Gainera Europako kotxeentzako mendi igoera txapelketan parte har dezake, honetarako derrigorrezkoa delarik patrozinadoreen laguntza.

GIARTZU

(M. Isabel Hurtado)

**Dermostetika
osoko zentroa**

Laser izpien bidezko erreku-perazioa
Erreku-peragailu elektrikoa
Korrente kapazitati-boak

Estetika Tramentuak
Larruazal garbiketak
Kosmetika espezialiatua

Boni Laskurain 3, Etxabea, Tfnoa: 76 35 71



San Antonioko tanborrada

Makinatxo bat argazki eder atera zuen garai batean Don Serafinek. Honako argazki hau 1967ko ekainaren 11n aterata dago San Antonioko tanborradan. Azken urteetan jairik ere ez da izan.

Hara zeintzu diren bertan agertzen direnak, ezkerretik eskumara:

Aurreko ilaran: Joseba Peña, Iolanda Garcia eta Francisco Javier Roige.

Atzeko ilaran: Koro Arrese, ezezaguna, Begoña Gallastegi, Txaro Garcia eta Jose Angel Roige.

*Estepan Plazaola
Argazkia: Don Serafinena
(Jose Angel Roigek utzia)*

BERGARA

Karrozeria

Txapa - Pintura

Tfnoa: 76 12 31

LILURA

**EDERTZE
INSTITUTUA**

Bidekurutzeta, 7
BERGARA
☎ 76 31 71



**LARRAÑAGA
eta ZUBIA**

Banatzaileak

Errioxako ardoak, olioak,
esnea, lejiak...

Martokua 32, tfnoa: 764594

ETXEBIZITZA

Ganbarak hustu eta garbitzen ditugu.
☎ 76 82 17.

Antzuolan pisua salgai, Ibarra 3, 6.C.an.
☎ 76 62 49.

Bergaran herriaren erdialdean ileapaindegia alokatzen da. ☎ 76 16 17.

Harrizurin garajea salgai.
☎ 74 30 55/ 74 43 19

Pisua salgai Bidekurutzetan. (5.000.000).
☎ 76 09 36.

Artakalen pisua salgai
☎ 76 55 63. Gauzez.

Garajea salgai Santa Marinaran. ☎ 76 32 70.

Pisua hartuko nuke alokairuan. ☎ 76 44 65.

Pisu amueblatua alokatzen da Bergara erdian.
☎ 12 12 71.

Espaloian garajea salgai
☎ 76 23 27.

Pisua salgai Artzamendin mueblekin edo mueblegabe. ☎ 76 40 82 (6etatik aurrera).

Pisua salgai Martokuan. 80 metro karratu.
☎ 76 14 13 (gauzez)

Antzuolan etxebizitza salgai Errekalden.
☎ 76 60 40.

Taberna alokatuko nuke
☎ 76 53 73.

SALDU-EROSI

Koker arrazako txakur bat salgai (marroia).
☎ 76 56 06.

Citroen AX Image SS-AG matrikuladuna salgai.
☎ 76 35 50 (gauzez) edota 79 82 10 (egunez).

Ardi txakurkumea salgai. 5 hilabete.
☎ 76 54 53.

Oinarrizko Heziketa Orokorra, U.B.I., B.B.B. eta Lanbide Heziketako klase partikularrak ere ematen ditut.
☎ 76 44 34 (Amaia)

VESPA 200 bat salgai. Prezio onean.
☎ 76 55 80.

Eskiko Koflach-Valuga botak erosiko nituzke.
☎ 76 05 92 (Jose Angel).

Collie arrazako lau txakurkume salgai. Prezio interesgarria. ☎ 15 04 41.

Bateria klaseak ematen dira.
☎ 76 54 74 (Aitor).

OPEL CORSA SS-S gorria salgai. Prezio onean.
☎ 76 55 80.

Petroliozko estufa salgai. ☎ 76 50 05.

Peavy 100 watts bi anpli salgai. Biak 100.000 pezetatan (bat 60.000).
☎ 76 10 34.

Kitarra akustikoa salgai (15.000). ☎ 76 11 89.

OHoko klase partikularrak: ☎ 76 31 93.

Peugeot 205 XL bat salgai. 6 urte SS-W.
☎ (945) 27 92 73 (arratsaldez) / 76 05 23 (gauzez).

Pasiatzeko bizikleta ia berria salgai.
☎ 76 45 64.

LANA

Neska behar da etxeko lanak egiteko. ☎ 76 31 58.

Neska batek etxeko lanak egin eta umeak zainduko lituzke.
☎ 76 45 53.

Emakumezko batek haurrak zaindu eta etxeko lanak egingo lituzke: ☎ 76 36 06 (Marisol).

Fisika eta matematikako klaseak (U.B.I. eta B.B.B.) emango nituzke.
☎ 76 31 76.

Etxeko lanak egin eta umeak zainduko lituzke neska batek ☎ 76 07 26 (Amaia).

Edozein motatako lanak makinaz edo ordenadorez pasatzen ditugu.
☎ 76 17 20 (Laura).

Neska batek etxeko lanak egin edota umeak zainduko lituzke.
☎ 76 60 65.

Hildakoak

Iñaki Gallastegi Agirre
azaroak 20, 59 urte
Paula Yarza Maiztegi
azaroak 22, 73 urte
Juana Gabilondo Alberdi
azaroak 24, 54 urte


Jaiotakoak

Izaro Arizabaleta Gantxegi
azaroak 7
Iñaki Díez Larrañaga
azaroak 15
Urko Sánchez Cantero
azaroak 20

AUTOPULLMANS ARABA
Autobusak

Eskurtsioak eta bidaiak edozein tokitara

ANGIOZAR ☎ 76 55 70




JAUJA KIROLAK
Irizar 2, Tfnoa: 76 14 95

HALTZARI

FAGOR ALTZARIEN BANATZAILE BAKARRA

Harane Erreka 4
Tfnoa: (943) 76 30 57

BERGARA
(Gipuzkoa)



SUKALDERAKO ALTZARIAK



6 URTEKO GARANTIA



**MOTA
GUZTIETAKO
INSTALAZIOAK**

Koldo Elizalde, 8 BERGARA

☎ 76 00 00